

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Joxe Manuel Agirre Eizagirre  
Endañeta*

*Zumaja,  
Gipuzkoa  
(1943)*

Aurkibidea



## Biografia



Itziarko Endañeta baserrian jaio zen, eta bertan bizi izan zen ezkondu zen arte. 12 senideen artean erdikoa zen bera, baserriko lanak egiteaz gain, igeltsero lanetan aritu zen urte luzez. Harriarekiko zuen afizioari heldu eta Gipuzkoako harri-jasotzailerik onenatarikoa izan zen, harri errektangular eta kubiko handiekin ez zuen parekorik, askotan aurkariei abantaila ematen zielarik. Apustuak eta erakustaldiak nonahi egiten zituen, baita Iparraldean ere. Apustularitzan jardun zuen harik eta ezkondu zen arte, eta ondoren erakustaldiak soilik egiten zituen, 40 urterekin utzi zion afizio eta erdi ofizioari.

## Zintak

### ZUM-107

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi
- **Data:** 2012-12-06
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

## Pasarteak

### 1. Baserrian, dena eskulana

- **Erref:** ZUM-107/004
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:03:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

Endañeta baserri handia zen; senide asko ziren, baina denen beharra izan omen zen. Eskolatik etxeratutakoan, baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen. Soroko lana: lehen, aitzurrarekin eta ganaduairekin prestatzen zuten lurra... Artoa, garia, patata... landu ohi zituzten. Ganaduaientzako azpigarriak menditik ekarri behar izaten ziren...

## 2. Jatorduak

- **Erref:** ZUM-107/005
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:03:04. **Bukatu:** 00:03:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

### Laburpena:

Joxe Manuelen haurtzaroko urteak, gose urteak izanagatik, baserrian ez zuten goserik ezagutu. Amak prestatzen zuena jan behar izaten zen. Babarruna, patata, oiloa, untxia, arroz-esnea, flana... egin ohi zituen amak.

## 3. Eskola eta dotrina Zumaian

- **Erref:** ZUM-107/007
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:06:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

### Laburpena:

Eskola garaiko kontuak. Eskolan eta dotrinan Zumaian ibili zen. Komunioa Zumaiako parrokian egin zuen. Bere gurasoen garaian, elizako kontuak Itziarren egiten omen ziren. Eskola non zegoen azaltzen du; mutilek ez zuten uniformerik erabiltzen, neskek bai. Itziartik oinez jaisten ziren Zumaiara; gero, izebaren etxean bazkaltzen zuten.

## 4. Igeltsero lanetan hasi

- **Erref:** ZUM-107/008
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:06:27. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

14 urterekin hasi zen igeltsero lanetan. Zumaiako lantegietan ba omen zen gazteentzako lana, baina Joxe Manuelek obrako lanetan aritzeko gogoia zuen. Lanetik baserrira bueltatutakoan ere lanean jarraitu behar izaten zuen; ganajatekoak prestatzen, ukuilua garbitzen...

## 5. Jaiotzetik harri-jasotzeko afizioa

- **Erref:** ZUM-107/009
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:08:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Harri-jasotzen nola hasi zen. Harri-jasotzeko afizioa jaiotzetik ekarri zuela dio Joxe Manuelek; irratian entzuten zituen harri-jasotzaileei buruzko kontuak, baserrian pentsu-zakuak jasotzen aritzen zen... Anaia zaharragoak asko laguntzen zion, baina gurasoek ez zuten nahi harri-jasotzen ibil zedin.

**6. 'Urtain' vs 'Endañeta'**

- **Erref:** ZUM-107/010
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:08:58. **Bukatu:** 00:11:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

<p>Harri-jasotzaile eta herrien arteko pikeak. Arroa aldeko jendeak <em>Urtain</em>en alde egiten zuen, eta Itziar-Zumaia aldeko jendeak bere alde. 125 kiloko harri kubikoa altxatzeko apustua egitekoak ziren, baina <em>Urtain</em>ek eskuan min hartu zuen 15 egun lehenago, eta bertan behera geratu zen kontua. Gero, Joxe Manuel soldadu joan zen, eta denbora horretan <em>Urtain</em>ek harri-jasotzeko apustua egin zuen Eibarko Gallastegirekin. Apustu hura irabazita, sona handia hartu zuen <em>Urtain</em>ek. Biak soldadutzatik bueltatu zirenean, saiatu ziren elkarren kontra apusturen bat egiten, baina ez ziren adostasun batera iritsi.</p>

**7. 21 apustu harri-jasotzen**

- **Erref:** ZUM-107/012
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:12:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

<p>21 apustu egin zituen harri-jasotzen. <em>Soarte</em>ren kontra jokaturako apustu bati buruz hitz egiten du. Harri txikiarekin bai, baina harri handiarekin ez zuen parekorik; arerioei abantaila eman behar izaten zien.</p>

**8. Lau apustu Mendizabalen kontra**

- **Erref:** ZUM-107/013
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:12:38. **Bukatu:** 00:13:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Gero, Mendizabal Villabonako harri-jasotzaile gaztea agertu zen. Haren kontra lau apustu jokatu zituen; **Enda&ntilde;eta**k irabazi zituen laurak. Lau apustuei buruzko azalpenak ematen ditu.

**9. Hiru apustu 'Aritza'ren kontra**

- **Erref:** ZUM-107/014
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:13:57. **Bukatu:** 00:14:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Sondikako **Aritza** harri-jasotzailearekin ere hiru apustu jokatu zituen **Enda&ntilde;eta**k. Bat, **Enda&ntilde;eta** 200 kiloko harriarekin eta **Aritza** 185 kilokoarekin. Esku batekin ere jokatu omen zion beste bat. Bizkaia aldean apustuak egindakoa da **Enda&ntilde;eta**, baina apustu gehienak Azpeitian jokatu izan ditu.

**10. 150 kiloko kubikoa esku bakarrarekin**

- **Erref:** ZUM-107/015
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:14:31. **Bukatu:** 00:15:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

**Enda&ntilde;eta**k egindako marka bat hautsi gabe dago oraindik. Apustua: **Enda&ntilde;eta** 150 kiloko kubikoa esku bakarrarekin, eta **Aritza**k, berriz, 150 kiloko zilindroarekin. **Enda&ntilde;eta**k 25 jasoaldi egin zituen; **Aritza**k, ostera, 21.

**11. Entrenamenduak eta elikadura**

- **Erref:** ZUM-107/016
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:15:02. **Bukatu:** 00:18:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Entrenamenduei buruzko azalpenak: astean bitan entrenatzen zen; gainerakoan, sokasaltoan, mendian ibili... ohi zen. Elikadurari buruzko azalpenak: zer jaten zuen, zerk egiten zion kalte... Askok jateak indarra ematen zuenaren ustea zegoela dio. Lehen, apustuatarako entrenamenduak ezkutuan egiten ziren. Hasieratan, Orioko Atxagarenaga joaten zen entrenatzera. Gero, baserrian, anaien laguntzarekin entrenatzen hasi zen.

## 12. Plazako giroa

- **Erref:** ZUM-107/017
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:20:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

### Laburpena:

Harri-jasotze apustuak. Plazan sortzen zen giroari eta apustuei buruz hitz egiten du. Azpeitia, Azkoitia, Asteasu, Aia, Elgoibar eta Eibarren harri-jasotzeko "kristoren giroa" egoten omen zen. Bizkaia aldean gutxiago.

## 13. Apustuen berri ematea

- **Erref:** ZUM-107/018
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:21:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

### Laburpena:

<p>Harri-jasotze apustuak <em>La Voz de Espa&ntilde;a</em> eta <em>El Diario Vasco</em> egunkarietan eta irratian iragartzen zituen <em>Basarri</em>k. Plazak leporaino betetzen omen ziren. Plazara sartu aurretik apustu ugari egiten omen zen; plazan ere artekariak ibiltzen ziren. Apustuak: hiru zazpiko edo hiru hamarreko tandak izaten ziren. Lehengo apustuak eta oraingoak alderatzen ditu.</p>

## 14. Apustu gogokoenak

- **Erref:** ZUM-107/021
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:24:09. **Bukatu:** 00:25:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

### Laburpena:

<p>Berak jokatuako harri-jasotze apustu gogokoenak zein dituen kontatzen du. Lehen, harrien pisua arroatan neurtzen zen; arroak 12,5 kilo pisatzen ditu.</p>

## 15. Jendearen afizioa

- **Erref:** ZUM-107/024
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:26:42. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Garai batean, harri-jasotzeko afizio handia zegoen. Jendea Endañeta baserrira joaten omen zen harriak probatzera.

**16. Harri-jasotzearen jatorria**

- **Erref:** ZUM-107/026
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:28:32. **Bukatu:** 00:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

<p>Harri-jasotzearen historiari buruzko azalpenak. Lastur, Itziar eta Mutriku inguruetan kokatzen ditu lehenbizi agertu ziren harri-jasotzaileak. 1925. urteko datuak aipatzen ditu: Arteondo eta <em>Aritza</em>ren apustuei buruzko datuak. Garai bateko hainbat harri-jasotzaile aipatzen ditu: <em>Soarte</em>, Baldomin, Atxaga, Manterola, <em>Urtain</em>... Baserriko giroan kokatzen du hasierako harri-jasotzea.</p>

**17. Harriak, harrobiak eta harginak**

- **Erref:** ZUM-107/027
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:31:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Etxeginak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

<p>Harria eta harrobiak. Harri motak eta ezaugarriak. Harri karaitza: harri zuria, harri handietarako bolumen handia hartzen du... Lasturgo harrobiko harri karaitza erabili izan du. Harri beltza: astunagoa, 200 kilotik gorako harrietarako. Harri beltza Zumarragako harrobitik ateratzen omen zen. Garai batean hargin ugari zegoen. <em>Enda&ntilde;eta</em>ren garaiko hargina: Langa. Lehen, eskuz ateratzen zuten harria.</p>

**18. Harri-jasotzeko arropak**

- **Erref:** ZUM-107/028
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:31:58. **Bukatu:** 00:34:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena:**

Harri-jasotzeko zer arropa erabiltzen zuen azaltzen du: txalekoa, galtzak, sorbalda eta izterreko babesgarriak... Hanka-hutsik ibiltzen zen harri-jasotzen. Harria lagatzeko, berriz, bere aurrekoek hondar zakuak edo ohola erabiltzen zuten. Gero, bera hasi zen automobileko "kubierta" erabiltzen. Eskuetan eta txalekoan erretxina ematen zuten.

**19. Hastapenak eta lehenengo harria**

- **Erref:** ZUM-107/029
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:34:54. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Hastapenak. Harri-jasotzen hasi zenean etxekoek zer esaten zioten. "Lehendabizikotikan gure amak kristoren disgustoa" hartu zuela dio. 15 urte zituela, lehenengo harria nola lortu zuen kontatzen du. Baserriko lanak egin eta gero, anaia zaharrena eta bera harria jasotzen ibiltzen omen ziren. Harriaren arropak puskatzen zituzten, eta amak errieta egiten zien.

**20. Azken urteak**

- **Erref:** ZUM-107/031
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:38:36. **Bukatu:** 00:39:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

33 urte zituela ezkondu zen. Emazteak ez zuen nahi bera harri-jasotzen ibil zedin, eta horrela, utzi zion harri-jasotzeari. 20 urterekin jokatu zuen lehenengo apustua, eta 34 urterekin utzi zuen harri-jasotzea. 40 urtera arte, ordea, erakustaldiak ematen aritu zen.

**21. 1969an, 'Espainiako gizonik indartsuena'**

- **Erref:** ZUM-107/036
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:41:09. **Bukatu:** 00:45:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

<p>1969an <em>Espainiako gizonik indartsuena</em> indar proba irabazi zuen. Espainiako telebistak antolatutako lehiaketa bat zen. Langa harginarekin joan zen Madrilera. 15 egun, 10 parte-hartzaile, sei proba... Zer proba egin behar ziren azaltzen du. Lehiaketa hura irabaztea lagungarria egin zitzaioen erakustaldi gehiago egiteko.</p>

## 22. Apustuak eta kontratuak

- **Erref:** ZUM-107/038
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:45:11. **Bukatu:** 00:47:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

### Laburpena:

Apustuak asteburuetan jokatzeko ziren. Prentsaren bidez iragartzen ziren harri-jasotzeko apustuak. Harri-jasotzaileek kontratu bat sinatzen zuten, baldintzak zehazteko: zer harri, nolako tandak... Sariak oso gutxitan izaten ziren. Lehen ez zen txapelketarik antolatzen.

## 23. Harrobiak eta harria

- **Erref:** ZUM-107/039
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:50:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

### Laburpena:

Harrobiak. Lastur, Mutriku eta Zumarragako harrobiak ditu hizpide. Harria nola ateratzen zen kontatzen du. Harria nola aukeratzen zuen, eta nola mugitzen zuten. Harginak astebete behar izaten zuen harriari forma emateko, eskuz egiten zuten lana.

## 24. Plazako giroa eta bertsolariak I

- **Erref:** ZUM-107/040
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:50:37. **Bukatu:** 00:53:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

### Laburpena:

Erakustaldiak. Furgoneta edo kamionetan eramaten zuten harria. Anaiak lagundu ohi zion. Bere garaiko bertsolariak epaitzen ditu. Plaza askotan egiten zuen topo haiekin, eta enbidia handia zien mikrofono aurrean jarri eta kantatu besterik ez zutelako egin behar. Berak harriarekin atzera eta aurrera ibili behar izaten zuen. Bertsolariak erakustaldi ondorengo bazkarietan eta sortzen zuten giroari buruz hitz egiten du.

## 25. Plazako giroa eta bertsolariak II

- **Erref:** ZUM-107/041
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:53:23. **Bukatu:** 00:56:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Bertsolaritzari buruz hitz egiten du. Lehengo giroa eta oraingoa alderatzen ditu. Gustuko bertsolariak. Herri-kiroletan eta bertsotan ibiltzen zirenen arteko harremana.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-01*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com